



Arartekoaren ebazpena, 2010eko azaroaren 18koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari gomendatzen zaio berriro ere azter dezan eraikitze lanen ezkutuko akatsengatiko erantzukizunaren adierazpena ematen duen ebazpena.

Aurrekariak

1. (...) jaunak erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak 20 urtetan zehar bideratu dituen jarduerak ikusita, Laudioko ertzain-etxean eta suhiltzaile parkean agertutako eraikitze lanen akatsen erantzuletzat jotzen baitzuten.

Pertsona horrek aurrekari gisa aipatu digunaren arabera, erreferentziako eraikinen proiektua idazten eta lanak zuzentzen parte hartu zuen, arkitekto gisa. Eraikuntzetan azaldutako eraikitze lanen akatsak ikusita, Eusko Jaurlaritzak prozedura ezberdinak izapidetu ditu aipatutako eraikitze akats horietatik eratorritako erantzukizuna erreklamatzeko. Zehazki, hurrengoak adierazi ditu:

- a) 1993ko edo lehenagoko gorabehera prozedura, etenduraren erreferentzia aipatuz (1994ko otsailaren 18a, ELATen Kontratazio Saileko buruak sinatua).
- b) Zenbateko gutxiagoko epaiketa 2000 urtean. Hura jurisdikzio zibilaren eskumen faltaren aitopenarekin amaitu zen.
- c) Administrazio prozedura hamabost urteko erantzukizuna aitortzeko 2002an, eta 2005ean amaitua.
- d) Aurreko prozedura baliogabetzea, izapidetutako espedientea iraungi izanagatik. Hori EAEANen 2009ko maiatzaren 11ko epai bitartez jazo zen.

Une honetan berriro ere guk esku har dezagun eskatu digute, 2010eko otsailaren 3ko Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren agindu bidez, administrazio espedientea berriro ere hasi delako, erreferentziako eraikitze lanen ezkutuko akatsen erantzukizuna argitze aldera. Horri dagokionez, interesdunak uste du prozedura berri hori ere iraungita dagoela, ebazpenerako aurreikusitako hiru hilabeteko legezko epea igaro izanagatik. Hasierako kexa aurkeztu zuenean adierazitakoari jarraiki, ofizioz iraungipena adieraztea eskatu izan arren, salatu zituen beste prozedura akatsez gain, ez zuen bestelako erabakirik lortu.

Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari eskatu zion erreferentziako erreklamazioaren izapideen egoeraren berri eman ziezaion.

2. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak 2010eko ekainaren 15eko agindua bidali zigun, Herrizaingo sailburuarena. Horren bidez, Laudioko ertzain-etxea eta suhiltzaileen parkea eraikitze lanetako ezkutuko akatsen erantzukizuna





aitortzen zen. Ebazpenak kexagilea jotzen zuen erantzuleztat, erantzukizunaren bi heren hari egotziz, interesdunak adierazitakoaren arabera, bi milioi euro baino gehiagotan baloratuta.

3. Interesdunak, halaber, Herrizaingo sailburuaren 2010eko uztailaren 19ko agindua helarazi zigun. Horren bidez, eraikitze lanen ezkutuko akatsengatik erantzukizuna aitortzeko prozeduraren iraungipena onar zezaten aurkeztu zuen eskaeraren aurkako gora jotzeko errekurtsioa ukatzen zen, administrazio-isiltasunaren bidez.
4. Bi ebazpenak aztertu ondoren, informazio berria eskatu genion Herrizaingo Sailari, interesdunak egin zuen espedientearen iraungipen alegazioei buruzko gure balorazioa helaraziz, bai eta erreferentziako ebazpena eteteari buruzkoa ere, eteteko eskaera aurkeztu zenetik berriaz hogeita hamar eguneko epean erabaki ez izanagatik, 2010eko ekainaren 15eko Herrizaingo Sailaren aginduaren aurkako berraztertze errekurtsioarekin batera. Azaldu genituen oinarri juridikoen arabera, sailaren laguntza eskatu genuen bai eta adierazi genizkizuen gogoetak aintzat har zenitzaten ere.
5. Interesdunak Herrizaingo sailburuaren 2010eko irailaren 14ko agindua bidali zigun, 2010eko ekainaren 15eko aginduaren aurka jarritako berraztertze errekurtsioa baliogabetzen zuena.
6. Herrizaingo Sailak bigarren eskaera hau erantzun zuenenean, erakunde honek adierazitako gogoeten argudioen gunea Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazioko Zuzendaritzan izapidetutako espediente bat zela esan zuen eta, beraz, aipatu sailera jo genezan adierazi ziguten, informazio eta ondorio zuzenak eta egokiak eskain ziezazkiguten.

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta azaldutako aurrekariak aztertu ondoren, egokitzen jo dugu hurrengo gogoetak zuri helaraztea:

Gogoetak

1. Kexak proposatzen dituen funtsezko auziak aztertu aurretik, Herrizaingo Sailak Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazioko Zuzendaritzara bidali izana aipatu beharko genuke, bertan, erakunde honek izapidetutako espedientearen inguruan dituen gogoetak azter ditzan.

Herrizaingo Sailak, aurrekarietan agertzen den moduan, erreferentziako eraikitze lanen ezkutuko akatsen erantzukizunaren espedienteari hasiera eman zion, zegokion ezkutuko akatsen erantzukizuna adieraziz ebatzi zuen eta izapidetutako espedientearen aurkeztutako gora jotzeko eta berraztertze errekurtsioak baliogabetu zituen. Hori guztia kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu, Herrizaingo Sailari eta, zehazki, bertako sailburuari dagokiola erreferentziako espedientea izapidetzean sor zitezkeen erabakiak hartzea.





Nolanahi ere, arartekoak bidali zuen planeamendu juridikorako arreta lortzeko, adierazi genizkizuen oinarri juridikoen babesean, organo eskudunaren ebazpen egokia beharrezkoa litzateke eta, esan dugun moduan, hura Herrizaingo Saila da. Hori guztia hala izan arren, Eusko Jaurlaritzako antolamenduaren barnean beharrezkoak gerta litezkeen izapideak, ebazteko eskumena ez zuen beste organo bati ere esleitu liezazkioke eta espedientea izapidetzen zuen organoak Herrizaingo sailburuari bere txostena aurkeztu ahalko lioke erakunde honek adierazitako gogoetei buruzko balorazioarekin.

Azken finean, gure ustez, organo eskudunaren erabaki onuragarri bakarra erakunde honek egindako planteamendua aintzat hartzea izango litzateke. Prozeduraren ikuspegitik, emandako ebazpen bat auzipetzen ari garenez, jarritako errekurtsioak kontuan hartzeko eta idazki batzuen eta besteen garaia ikusita, ebazpena baliogabetzeko (azaroaren 26ko 30/92 Legearen 105.1 artikulua), kexagileak aurkeztutako berraztertze errekurtsioa baztertzerakoan, organo eskudunaren esku-hartzea beharrezkoa izango litzateke ebazpenean. Hori guztia horrela bada ere, instrukzioko egintzen ofiziozko inpultsoaren barnean, organo eskudunak, ebazteko, txosten egokiak eskatu ahal izan zituen.

Hori guztia kontuan hartuta, egokitzen jotzen dugu ebazpen hau ematea, espedientea bideratu duen organoak egin dezakeen balorazioa jaso arte itxaron gabe, izan ere, izapide hori, ebazteko eskumena duen organoak ofizioz bultzatu behar izan zuen.

2. Aurreko gogoetak egin ondoren, eraikitze lanetako akatsen erantzukizunaren adierazpena zela-eta bideratutako espedientearen iraungipenari buruzko kexa aurkeztu zuenaren alegazioak –proiektua idatzi eta erreferentziako lanak zuzendu zituen arkitekto gisa– baloratuko ditugu.

Espediente hau ebazteko hiru hilabeteko epea dago, prozedura (Herrizaingo sailburuaren agindua) berriro ere hasteko erabakia hartu zen egunetik, hau da, 2010eko otsailaren 3tik¹, espedientearen ebazpena helarazi zen arte, hots, 2010eko maiatzaren 3ra arte. Lehen zenbaketa horri prozedura eteten edo geldiarazten duten izapideei dagozkien egunak gaineratu behar zaizkio, espedientea izapidetzean gertatu diren jazoeren arabera.

Gauzak horrela, alde batetik, erreklamatzailerak aurkeztu zuen eta prozeduraren izapideak geldiarazi zituen ezespeneri dagokion epea kontuan hartu behar dugu.² 4/1992 Legeko 29. artikuluko 3. eta 4. ataletan, kontu hau arautzerakoan, zehazten da ezespenera idatziz aurkeztu eta hurrengo egunean ezespenera egileak goiko hurbileneko agintariari motibo hori bere kasuan betetzen den ala ez jakinaraziko dio. Ezespenera egileak ezespeneraren motiboa ukatzen badu,

¹ 30/1992 Legeko 42.3 a) artikulua, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

² Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 77. artikulua.



agintariak hiru eguneko epean erabakia hartuko du, bere ustez beharrezkoak diren txostenak eta egiaztapenak egin ostean. Ezespenaren jazoera 2010eko martxoaren 12an gertatu zen, beraz, hurrengo egunean, martxoak 13an alegia, ezespren egileak jakinarazi beharko luke (egun hori larunbata zenez, egun baliogabea ez den arren, onargarria izango litzateke txostena martxoaren 15ean, astelehena, egin izan balitz). Azken aukera hori gertatu izan balitz ere, jazoeraren ebazpena, gehienez ere, martxoaren 18an, ostegunean, eman behar izango zatekeen.

Gai horren inguruan, administrazioak 2010eko uztailaren 19an adierazi duenaren arabera, izapidetutako espedientearen iraungipen eskaera isiltasunez ezeztu izanaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa ebatzi du, ezesprenaren ebazpena gehiago luzatzeko arrazoiak daude, izan ere, azkenean, ezetsitako instruktorea beste batekin ordezkatzea erabaki zen.

Ondare eta Kontratazio zuzendariaren ebazpenak, 2010eko martxoaren 25ekoak, ezezpina erabakitzen du (martxoaren 30ean helarazita), beraz, izapidea 17 egunetan ebatzi zen. Ebazpen horrek zehazten du ezespren egileari egozten zaizkion abstentzioaren arrazoiak ez daudela egiaztatuak eta, ia hogeita hamar urte bertan lan egiten egon ostean, ezin dela bere objektibitate falta zalantzan jarri. Hori guztia dela eta, erreferentziazko ezespina gaitzestea erabaki zuen. Ebazpen berean, hala ere, azaldu ez diren ezezpenaz gaindiko arrazoiak direla-eta, instruktorearen ordezkapena erabakitzen da. Ondorioz, ezetsitakoaren ordezkapena ez da eskatutako ezezpenaren ondorio izan, azken hori berariaz ukatu baitzen eta, beraz, ezin da izapidea ebazteko epearen zenbaketa luzatzeko arrazoi gisa argudiatu.

Horrez gain, ebazpenak aipatzen du ezesprenaren jazoera epe motz eta bidezkoan eman zela. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar dugu aipatutako epeak eta izapideak eztabaidaekin direla, beraz, bidezkotzat jo daitekeen epea zehaztea ezin da egon administrazioaren menpe, egoera hori argudiatzeko ahalegin handiagorik egin gabe. Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2002-10-11ko epaiak, ebazpena eragindako administrazioaren tesiaren alde eman zuenak, zera zehazten du zuzenbideko bigarren oinarrian:

*“En efecto, el plazo de **caducidad** de treinta días desde el vencimiento del plazo en que debió ser dictada la resolución (establecido en el artículo 43.4 de la Ley 30/1992, de 26 de Noviembre) comenzó a computarse al transcurrir seis meses más cuatro días hábiles (3+1) de los que la Administración disponía para resolver el expediente de recusación ya que, con ser cierto lo que mantiene la defensa de la Administración de que, conforme a lo dispuesto en el artículo 77 de la Ley 30/1992, si bien las cuestiones incidentales que se susciten en el procedimiento no suspenderán la tramitación del mismo, a salvo la recusación que sí la suspende, no lo es menos que, en el supuesto que ahora se examina, la recusación debió resolverse, a tenor de lo establecido en el artículo 29 del mismo texto legal, en el plazo de cuatro días (3+1) al no*





ofrecerse razón para una mayor dilación por cuanto ha de repararse en que, de un lado, no se daba ninguna de las causas previstas a tal fin en el artículo 28 de la citada Ley 30/1992 lo que pone de manifiesto que bien pudo la Administración resolver sobre la marcha la desestimación de la recusación planteada; y, de otro, el examen del expediente revela que no existió petición de informes o comprobaciones que eventualmente pudieran justificar un mayor retraso a la hora de resolver la recusación planteada por los recurrentes.”

Epaiak ezezen espedientea la (3 + 1) egunetan ebazteko beharra azpimarratzen du, hipotetikoki epe luzeagoa balora zitekeela onartzen duela dirudien arren, betiere, luzapen handiagoa justifikatzen duten arrazoiak eskaintzen badira, baina beti ezezpena ebazteko izapidearen barnean, egoera honetan gertatzen ez dena, izan ere, proposatutako ezezpena baliogabetu zen. Ez dugu, bestalde, ezezpena ebazteko ezarritako 4 eguneko epe mugatuaren luzapena justifika dezaketen txostenen edo bestelako egiaztapenen berririk.

Laburbilduz, gure ustez, izapidea 2010eko martxoaren 18a baino lehen interesdunari jakinarazi behar izan zitzaion eta ebatzi behar izan zen, gauzak horrela, espedientea ebazteko ezarritako hiru hilabeteko guztizko epean sei egun natural gaineratu ahalko lirateke.

3. Interesdunaren ordezkariak eskatutako frogak onartzeari eta ebazpena emateko administrazioak alegatzen duen epe luzeagoari dagokionez, aipatzekoa da, prozedura bideratzean, froga gauzatzeko beharrezkoa den denbora ebazteko ezarri den guztizko epearen barnean zenbatu behar dela. Orokorrean ez dago xedatuta froga gauzatzeko adierazitako denbora espedientea ebazteko ezarritako epeari gaineratuko denik. Horren ildotik, hala dio Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 80.2 artikulua:

“2. Prozeduraren instrukzio-egileak frogaldia egitea erabaki dezake, administrazioak egiazkotzat jotzen ez baditu interesdunek alegatutako egitateak edo hala eskatzen badu prozeduraren izaerak. Frogaldia, gehienez, hogeita hamar egunekoa izango da eta, gutxienez, hamarrekkoa, egoki iritzitako froga guztiak egin ahal izan daitezen.”

Bestalde, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 81. artikulua zera dio:

“1. Administrazioak behar besteko denboraz jakinaraziko die interesdunei noiz hasiko den onartutako frogak gauzatzeko behar den jarduna.

2. Frogak non, noiz eta zein ordutan egingo diren jasoko da jakinarazpenean, eta ohartaraziko, hala badagokio, interesdunak teknikariak izenda ditzakeela lagundu diezaioten.”





2010eko apirilaren 23ko espedientearen instruktorearen ebazpenak erreklamatzailerak proposatu zituen frogak onartzea adostu zuen. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 80.2. artikulua babesean, bi aldeek proposatutako froga gauzatzeko 30 eguneko epea irekitzea xedatu zuen eta, 2010eko maiatzaren 21erako, aipatu teknikariei hitzordua eman zuen, bere garaian egindako eta espedientean bilduta dauden adituen txostenak berretsi eta argitze aldera. Ebazpenak, gainera, zenbait sailei beste prozedura eta agirien kopiak bidaltzeko eskatzen zien ere.

Ondorioz, instruktorearen ebazpen honen bidez gauzatu den frogaren epearen hasiera, xedapenak berak berariaz azaltzen duen moduan, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 80.2. artikulua frogaldiari dagokio, izan ere, ez da beste legezko erreferentziarik egiten eta ez da inolako aipamenik egiten espedientea ebazteko epea etetearen inguruan. Hori dela eta, esan dezakegu, ebazpen honen arabera, espedientearen instruktoreak ez zuen prozedura geldiarazteko beharra antzeman.

2010eko uztailaren 19ko aginduaren arabera, berriz, espedientearen iraungitasunaren eskaera baliogabetzean, frogaren gauzatzeko epea, 2010eko apirilaren 23tik (instruktorearen ebazpena) maiatzaren 21era doana (perituen hitzordurako deialdiaren eguna) prozedura geldiarazi izan bailitzan zenbaitu behar da, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42.5. artikulua jarraiki. Artikulu horretan, hain zuzen ere, prozedura erabakitzeko eta ebazpena jakinarazteko legezko gehienezko epea "*geldiarazi dezaket*" egoerak aipatzen dira. Zehazki, gure intereserako diren ondorioetarako, interesdunek proposatutako frogaren teknikoak edo azterketa kontraesankorrak edo deuseztatzaileak egin behar direnean, emaitzak espedientearen gaineratzeko behar den denbora igaro bitartean prozedura geldiarazi ahalko dela xedatzen du.

Ebazteko epearen eten hori ez da automatikoa Herrizaingo sailburuaren ebazpenak adierazten duen moduan, izan ere, espedientearen instruktoreak prozedura geldiaraztearen egokitasuna eta aukera baloratu behar du legez xedatutako epe maximoan ebatzi ezingo duela aurreikus dezakeelako eta berariaz adierazi behar du interesdunei behar bezala helarazitako dagokion ebazpenaren bidez. Kasu honetan, instruktoreak ez zuen egokitzat jo ebazpena emateko epea geldiaraztea. Bere erabakia argi utzi zuen, izan ere, frogaldia irekitzen duen 2010eko apirilaren 23ko ebazpenak ez du horren inguruan ezer aipatu, ez eta, beharrezkoa izan balitz, aukera horretarako ahalmena emango zion legearen 42.5. artikulua ere. Horren ordez, frogari hasiera emateko Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 80.2. artikulua aipatzen du.

Hori dela eta, ulertzen dugu prozeduraren ebazpena eta jakinarazpena 2010eko maiatzaren 10ean egin behar izan zatekeela (2010eko maiatzaren 9a igandea





izan baitzen). Ebazpena eta jakinarazpena 2010eko ekainaren 15ean egin zenez, erreferentziazko espedientea jada iraungia zegoen, ebazteko gehienezko epea dagoeneko igaro zelako. Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 44.2 artikulua araberan, eragin kaltegarriak edo kargak sor ditzakeen prozedura izatean, iraungipena gertatuko da, jarduerak artxiba ditzaten aginduz ebatzi beharko dena.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

23/2010 GOMENDIOA, azaroaren 18koa, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari egina

Dagozkion izapideak egin ondoren, erreferentziako espedientean eraikitze lanetako ezkutuko akatsen erantzukizunari buruzko espedientearen iraungipena adierazten duen ebazpen egokia eman dezan.

